

# ARGAZKI-LIBURUEN FENOMENOA

GARA | BILBOTARRA | IRUINDARRA | 7K | GAUR8 | MEDIABASK | KAZETA | INFO7 | 11 TB

RSS

EU

ES

FR

EN

¿Eres nuevo? [Regístrate](#)

[ENTRAR](#)

naiz:

[INFO](#) | [OPINIÓN](#) | [NAIZ+](#) | [AGENDA](#) | [SUSCRIPCIÓN](#) | [TIENDA](#)

# GARA

EDICIÓN  
IMPRESA



11°  
Maule

INFO7 EN DIRECTO



Lectores con criterio

[EGUNEKO GAIAK](#) | [EKONOMIA](#) | [EUSKAL HERRIA](#) | [IRITZIA](#) | [KIROLAK](#) | [KULTURA](#) | [MUNDUA](#)

[EL TIEMPO](#) | [BLOGS](#) | [ESQUELAS](#)

24/03/2018

AZKENAK

[KULTURA](#)  | [GAZTE LITERATURA](#)

## Irakurlea harrapatzen


XABIER ETXANIZ

ERLE

 IMPRIMIR

 ENVIAR





Sartuko dut? / -Ez dakit... / -Ez duzu nahi? / -Bai... baina... / -Zer? / - Ez dakit... beldurra ematen dit... / -Zergatik? / -Handia daukazulako. / - Baina ikusi eta ukitu duzu beste batzuetan ere. / - Baina, baina ez dakit kabituko zaidan...». Elkarrizketa honekin ekiten dio Alaine Agirrek gaztetxoei zuzendutako nobela honi. Ikus daitekeen bezala, gazte batzuen arteko harremanei buruzko obra dugu, harreman baita sexualak ere. Eta, ikus daitekeen bezala, nobela bizia eta irakurterraza dugu.

«Gazte nahiz helduek irakurtzeko moduko bilduma bat abiatzen du Alaine Agirrek liburu honekin, 'Txandaka' izenekoa, eta bertako pertsonaiak txandaka joango dira, ale batetik bestera, protagonismoa hartzen: orain Maren, gero Libe, hurrena Oier...», hauxe diosku liburuaren kontrazalak eta, hain zuzen, Maren dugu liburu honetako protagonista; Libe eta beste pertsonaia batzuk ere ageri dira, paper nahiko garrantzitsua dutelarik, baina fokua Marenengan dago liburu honetan.

Aurreko elkarrizketa, liburuari hasiera ematen diona, Marenen etxean gertatzen da; Maren eta Peruren artekoa kontaktzen du, bai eta Marenek amodioa egiten duen lehen aldia nolakoa izan den ere.

naiz: **naiz:** @naiz\_info  
El juez Llarena acepta que Puigdemont, Ponsatí y Puig se personen en la causa por el procés  
[naiz.eus/eu/actualidad/...](http://naiz.eus/eu/actualidad/)

naiz: **naiz:** @naiz\_info  
En Bildu solicita la dimisión del teniente alcalde de Gernika por pagar un viaje a su hijo a Cracovia  
[naiz.eus/eu/actualidad/...](http://naiz.eus/eu/actualidad/) @goikodeustu

HEMEROTECA GARA HASTA 12/11/2013

HEMEROTECA GARA DESDE 12/11/2013

PUBLICIDAD

Irakurlea berehala identifika daiteke protagonistarekin, honen beldur, kezka, pentsamendu, zalantza eta abarren lekuko baikara. Marenentzat garrantzitsua da Perurekin izaniko harremana; mutilaren jokabideak, aldiz, neskaren haserrea sorraraziko du eta bien artekoa hoztu egingo da.

Gaur egungo neska-mutilen giroaren isla da obra hau. Protagonista nagusiak hamasei urte ditu eta gurasoen nahia betetzen du, ikasketetan nota onak atera, alkoholik eta zigarrorik dastatu ere ez (edo oso gutxi etxeratzerakoan amaren kontrola pasatzeko moduan)... mundu perfektu hori, ordea, erortzen hasiko da poliki-poliki; hasieran Perurekin izanikoagatik, ondoren ezagutzen duen neska batengatik, Libe. Erdian, Marenen sentimendu zurrumbilo horren erdian, Ane ageri zaigu, Marenen lagun mina, eta hau bezala gaztaroko sentsazio eta sentimendu sumendi batean sarturik. “Maren” obra 29 kapitulu laburretan dago egituratuta eta horrek, eta egileak erabilitako estiloak, oso irakurterraza egiten dute nobela. Ekintza ugari daude, deskribapenak badira ere, gertakariak dute pisurik handiena. Irakurlea alde batetik bestera darama egileak, gertakari batetik horrek sorrarazitako egoeraren deskribapenera eta ondorioetara. Marenen munduan barrenako bidaia horretan, irakurlea eskolan, etxean eta tabernetan zehar arituko da. Eta eskolan izaniko jarrera aldaketa horrek zer nolako egoera sortuko duen etxean; tabernan jazotakoek, nolako oihartzuna, berriz, Maren eta bere lagunaren artekoan; Liberi emaniko musuak nolako ametsak sortuko dituen Marenen ohean... Bai, liburu honetan maitasuna, amodioa, dugulako gai nagusietakoa, hasierako maitasuna –amodioa egitean Perurekin–, zalantzazko egoera bilakatuko da eta Liberekiko harremana izaten amaitu. Agirre, beste kontu batzuen artean, nesken arteko harremanaz ari zaigulako liburuan, eta horrek zer nolako zalantza sortzen dion protagonistari, zalantza, berak uste zuelako Peruz maiteminduta zegoela.

Idazlan interesgarria dugu nobela hau. Gai asko ukitzen dituena; eta batzuetan, onartu behar dut, irakurlea gehiago jakiteko edo irakurtzeko gogoz uzten duena, eta agian bildumako hurrengo obrak irakurtzen jarraitzera bultzatzen gaituena.



Baina, edozein kasutan, oso arin eta erraz irakurtzen den nobela da. Eta honek burura dakarkit duela gutxi plazaratu den euskal kulturaren inguruko estudioaren emaitza; euskaldunok gutxi irakurtzen dugu euskaraz, eta horren arrazoi nagusietako bat zailtasuna omen da; euskaraz irakurtzeko dugun zailtasuna. Liburu honekin, behintzat, euskal irakurleek ezingo dute aitzakia hori erabili...

▶ INFO	▶ OPINIÓN	▶ NAIZ+	▶ AGENDA	▶ ESPECIALES	▶ REGISTRO
▶ EUSKAL HERRIA	▶ EDITORIAL	▶ FACEBOOK	▶ ENVIAR EVENTO	▶ NUEVO TIEMPO	▶ SUSCRIPCIÓN
▶ MUNDO	▶ ARTÍCULOS	▶ TWITTER	▶ CULTURA	▶ LINEA DEL TIEMPO	▶ CONTACTO
▶ ECONOMÍA	▶ TASIO	▶ BLOGS NAIZ+	▶ MÚSICA	▶ DONOSTIA 2016	▶ PUBLICIDAD
▶ DEPORTES	▶ AL DIRECTOR	▶ GOOGLE+	▶ NIÑOS	▶ ZINEMALDI 2014	
▶ CULTURA	▶ BLOGS		▶ OCIO	▶ FÚTBOL	
▶ IMÁGENES			▶ TABLÓN	▶ BALONCESTO	
▶ VIDEOS				▶ GURE ESKU DAGO	
▶ AUDIOS				▶ M25 ELECCIONES	
▶ EL TIEMPO				▶ SANFERMINES	

**naiz:** [CONTACTO](#) [QUIÉNES SOMOS](#) [FAQ](#) [PUBLICIDAD](#) [AVISO LEGAL](#) [RSS](#)

